

# Zer egingo dugu orain: bazkaldu ala afaldu?

Begoña Molero Otero

Josune Bilbao Zabala

**Ikasle kaiera**

IKD baliabideak 3 (2012)

## AURKIBIDEA

1. Zer egingo dugu proiektu honetan?.....	3
1.1 Andereño, zer egingo dugu orain: bazkaldu edo afaldu? .....	3
1.2 Nola bideratuko dugu proiektua? .....	4
1.3 Lan plangintza.....	6
1.4. Bibliowebgrafia.....	7
2. Aktibitateak .....	8
3. Informazio osagarria .....	33

## **1. Zer egingo dugu proiektu honetan?**

---

### **1.1 ANDEREÑO, ZER EGINGO DUGU ORAIN: BAZKALDU ALA AFALDU?**

Eskola testuinguru profesionalean irakasle moduan kokatuko zaituen lan bat egingo dugu Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza eta IKTak Haur Hezkuntzan irakasgaiak uztartzen.

“Proiektuetara bideratutako ikasketa” metodologia jarraituz, bukaeran lan bat aurkeztu beharko duzu egoera zehatz batean aplikatzeko.

Pentsa ezazu Haur Hezkuntzako Eskola batera heldu berria zarela , 3 urteko talde bateko tutorea izateko karguarekin. Gela D eredukoa da. Umeekin hasten zarenean jantokira joatean ilaran daudela, ume batek galdetzen dizu: Andereño, zer egingo dugu orain: bazkaldu edo afaldu?

Galdera horrek hausnarketa hau pizten dizu: Gizakion bizitza non eta noiz batean gertatzen da. Egiten, mugitzen, ikasten, maitatzen dugu nonbait eta noizbait. Baina

zer da denbora? Zer ezaugarri edo azpi-kontzeptu daude bere barnean? Nola lagunduko diet umeei denboraz jabetzen? Zergatik ez dakite? Nik, irakasle moduan, zer egin dezaket hurrek kontu hori hobetu uler dezaten ?

## 1.2 NOLA BIDERATUKO DUGU PROIEKTUA?

Metodologiari dagokionez, "Proiektuetara bideratutako ikasketa" aplikatuko dugu. Pausu hauek jarraituz:

	<p>1. Pausua: Proiektuari hasiera eman. Proiektua azaldu (eskenatokia eta galdera eragilea). Jarraituko dugun prozedura azaldu, taldeak sortu eta talde dinamika landu.</p>
	<p>2. Pausua: Proiektuari hurbilketa Zer dakigu umeei galdera horren bidez azaleratzen duten egoerari buruz? Zer dakigu umeen denbora pertzepzioaz? Zer lantzen da eskoletan gai honen inguruaz? Komeni zaigu eskolara joan</p>
	<p>3. Pausua: Proiektuan murgilduta.- Sakontze lana Zer diote adituek? Eskoletatik jasotako baliabideak eta irakasleek ekarritakoen analisisa egingo dugu. Sarean ere informazioa eta baliabideak bilatu eta aztertuko ditugu.</p>
	<p>4. Pausua: Gure proposamena. Umeen denbora pertzepzioa bultzatzeko baliabideak diseinatuko ditugu IKTen laguntzaz eta besteekin konpartituko ditugu.</p>
	<p>5. Pausua: Proiektuaren ostean Zer ikasi dugu?</p>

Pausu hauek jarraitzeko aktibitateak, derrigorrezko ematekoak, eta ebaluaziorako irizpide orokorrak ondorengo taulan ikus daitezke.

<b>Metodologia eta ebaluazio sistema: taula</b>					
Aktibitateak	Ematekoak	T/B	Nork ebaluatu?	Ebaluazio irizpideak *	Nota balioa
1. Irakasleak proiektua aurkeztu					
2. Taldea Osatzen	2. lehenengo akta	<b>T</b>	Irakasleak	Eranskinetan zehetuta	
3. Funtzionamendua hobetzeko hausnarketa	3. 1.Taldean lan egitearen inguruko hausnarketa. 3.2. Talde bileren aktak	<b>T</b>	Irakasleak		% 10
4. Zer dakigu?	4. Denboraren inguruko galdetegia.	<b>T</b>	Irakasleak	Eranskinetan zehetuta	% 5
5. Eskolara goaz.	5.1. Informazioa jasotzeko fitxa 5.2. Bisitaren informea	<b>T</b>	Taldeak berak		% 5
6. Adituen informazioa	6. Adituen testu iruzkinak	<b>B</b>	Irakasleak	Eranskinetan zehetuta	% 5
7. Material azterketa	7. Egindako analisiaren fitxa	<b>B</b>	Irakasleak		% 5
8. Baliabideak sarean	8.1. Erreferentziak markadore batean bildu. 8.2. Erreferentzia bat klase taldean aurkeztu.	<b>B/T</b>	Irakasleak		% 10
9. Non gaude orain?	9.1. Poster bat proiektuaren gidoiarekin.	<b>T</b>	Irakasleak	Eranskinetan zehetuta	% 35
10. Proposamena diseinatu eta gauzatu.	10. Bost baliabideak gauzatu.	<b>T</b>	Irakasleak		
11. Lana aurkeztu	11. Lana aurkeztu.	<b>T</b>	Beste taldeek Irakasleek		% 5 %5
12. Zer ikasi dugu?	12. 1. Denbora kontzeptuaren kategorien taula.	<b>B</b>	Irakasleak	Eranskinetan zehetuta	%5
	12.2. Auto-ebaluazioa.	<b>T</b>	Taldeak berak		% 10

## 1.3 LAN PLANGINTZA

	Ikaslearen jarduerak		ematekoa
	klasean	kanpoan	
1	1-2-3-4-5	5	2. Taldean lan aritzeko erabakiak. (1.akta) 3. 1.Taldean lan egitearen inguruko hausnarketa. 3.2. Talde bileren aktak 4. Denboraren inguruko galdetegia. 5. Informazioa jasotzeko fitxa
2	6-7-8	5-6	5.2. Bisitaren informea 6. Adituen testu iruzkinak 7. Egindako analisiaren fitxa 8.1. Erreferentziak markadore batean bildu. 8.2 Erreferentzia bat aukeratu eta klasean aurkeztu.
3	9-10	10	9.1. Poster bat proiektuaren gidoiarekin.
4	10	10	10. Bost baliabideak gauzatu.
5	11. Aurkezp. 12. Zer ikasi dugu?	12. Zer ikasi dugu?	11. Lana aurkeztu. 12. 1. Denbora kontzeptuaren kategorien taula. 12.2. Auto-ebaluazioa.

EGUTEGIA		
iraila		
		modulu lana
urria		proiektua
		proiektua
		proiektua
		proiektua
		aurkezpenak
azaroa		modulu lana

abendua		
		azterketak

## 1.4. BIBLIOWEBGRAFIA

MURUA, M. (2008). Gizarte eta kultur ingurunearen ezaguera. Donostia, EHU-UPV.

POZO, I. (1985) El niño y la Historia. Madrid, MEC.

TREPAT, C. A. eta COMES, P (1998) El tiempo y el espacio en la Didáctica de las Ciencias Sociales. Barcelona, Grao.

SERRA, J.A. (1997) "La orientación en los primeros cursos de primaria" en Aula de Innovación Educativa, 67 .

<http://www.slideshare.net/guest54c8b3/blog-para-familias>

<http://www.slideshare.net/evagallego/algunas-rutinas-en-infantil>

<http://guregelatxoa.wikispaces.com/Ohiturak+eta+errutinak>

## **2. Aktibitateak**

---

1. Proiektuaren Aurkezpena
Irakasleak proiektua aurkeztuko du klasean.
<b>Ematekoa:</b> EZ



**Deskripzioa:**

eginkizuna, galdera eragilea, eszenatokia, prozedura, ebaluazioa eta ematekoen zerrenda.

## 2. Aktibitatea: Taldea osatzen

### Ematekoak:

- 2.1. Taldean funtzionatzeko hartu diren erabakiak jasotzen dituen akta.
- 2.2. Bileretako aktak

### Entregatzeko **datak**:

1. akta: klasea bukatzean
2. Beste aktak, karpeta elektronikora igoko dira, lana bukatzean denak jasota egoteko

### Ebaluaziorako notarako balioa: %10

Kalifikazio honetan 2. eta 3. jarduerak sartzen dira.

2.1. Ematekoa: taldearen 1. aktan agertu behar dira taldearen osaketa 5 pausuetan modu egokian adierazita. (%2) adierazle hauen arabera: Zeregina ondo definitu dute. Funtzionatzeko dinamika eta arauak ondo definitu eta bete dituzte. Arazoak konpontzeko gaitasuna: nola adierazi eta hitz egin.

2.2. Aktak: gutxienez hiru bileren aktak agertu behar dira emandako eredu jarraituz. (%3)

Talde dinamika: talde bakoitzak egingo du (%4)

	<b>GUTXI LANDUA 1</b>	<b>ERDIXKA 2</b>	<b>ONGI 3</b>	<b>OSO ONGI 4</b>
Talde dinamika	Taldekideak ez dira bat etorri lana antolatzeko unean. Taldekide batzuk ez dute ia ekarpenik egin.	Taldekideek, denak ados, lanaren banaketa egin dute. Kide bakoitzak berari dagokion lana burutu du, baina kohesioa falta izan da.	Taldekideek, ados, lana banatu dute eta kide guztien iritziak errespetatu dituzte. Aurkeztu duten lana koherentea da.	Taldekideek, ados, lana banatu dute. Denen iritziak errespetatu dira eta elkarri lagundu diote. Lanak koherentzia du eta taldea kooperazioan aritu dela antzematen da.

### Deskripzioa:

Ikasleek taldeak osatuko dituzte ondorengo puntuak kontuan harturik:

1. Lan egiteko taldeak sortu.
2. Taldekideen izenak jaso eta taldearen izena aukeratu.
3. Taldearen xedea definitu.
4. Kideen eginkizunak zehaztu: funtzioak eta rolak (edo ardurak) definitu eta banandu, (koordinatzailea, teknikaria, idazkaria...)

5. Funtzionatzeko arauak adostu eta arazoak konpontzeko bidea aurreikusi.
6. Ataza bideratzeko eman beharreko pausuak: ataza definitu, pausuak identifikatu, lan egiteko eskema irudikatu, kronograma egin (denboralizaioa: datak eta bilerak), egingo diren bilerak pentsatu.

## Akta jasotzeko eredia

Taldearen izena:

Data:

### 1. Bilera:

Noiz hasi eta bukatu

Bertaratuak:

### 2. Landutako gaiak eta hartutako erabakiak:

Gai bakoitzaren inguruan aipagarriena esan eta horren inguruan hartutako erabakiak jaso.

### 3. Egiteko atazak:

- A taldekideak:
- B taldekideak:
- C taldekideak:
- D taldekideak:

### 4. Hurrengo lan saioa

**Noiz: .**

**Gai ordena:**

### 5. Hausnarketa

Erritmoa: Lan egiteko epeak betetzen ditugu....

Asebetea: gustora jarduten naiz

Taldekide bakoitzak lana betetzen dute.

### 3. Aktibitatea: Taldearen funtzionamendua hobetzeko hausnarketa

**Ematekoak:**

3.1. Talde lanari buruzko hausnarketa

Entregatzeko **datak:** klasea bukatzean

**Ebaluaziorako** notarako balioa: %10

2. aktibitatearekin batera %10.

Ematekoa: gutxienez hiru abantaila eta hiru eragozpen identifikatu behar dituzte. (%1)

**Deskripzioa:**

ikasleek taldean lan egiteari buruz hausnarketa egingo dute "Aurretiko hausnarketa" gidoia erabiliz. Banaka eta taldean.

### 3. Aktibitatea: Taldearen funtzionamendua hobetzeko hausnarketa.

Talde lanari buruzko iritziak edo esperientzia batzuk deskribatzen dira hurrengo esaldietan:

- Iaz Matematikan lan bat egin genuen taldean eta primeran atera zen dena, hori bai, nota espero nuen baino baxuagoa ipini zidan irakasleak.
- Ezin dut jasan, denbora guztian Jonek esaten duena egin behar dugu, eta beste edonork zerbait egiten ba du, gero berak dena eraldatzen du.
- Taldean lan egitea rollo bat da.
- Irakasleak jarraibideak oso argiak eman zizkigun eta primeran funtzionatu genuen, bakoitzak egin beharrekoa egiten genuen eta listo.
- Jonek mutur handia dauka, beti eskakeatzen saiatzen da.
- Matematikan egin genuen lanean ez nintzen ezertaz enteratu, eta orain zailtasunak ditut ikasgai hau jarraitzeko.
- Jon urrun bizi denez 10 minutu beranduago etortzen da, baina ez da arazoa, gero azaltzen diogu eta ahal duena egiten du.

1. Indibidualki irakurri ondoren, erantzun idatziz galdera hauek

- zer bururatzen zaizu?
- Nolako jarrera adierazten du hiztunak?,
- zein arazo azaleratzen du?

2. Gero, 4ko taldetan elkartu eta norberaren hausnarketa komentatu: bakoitzak berea azaltzen du, besteek notak hartzen dituzte eta gero elkarren artean komentatzen dira.

3. Ondoren: taldean lan egiteko abantailak eta arazoak identifikatu eta idatzi bi zutabetan

4. Bukatzeko: Taldean sortu diren ideiak aprobeztatuz indibidualki egin diren hausnarketa osatu: ikasle bakoitzak bere hausnarketa eta gero bere konklusioak idatziko ditu.

5. Ebaluazioa: gutxienez hiru abantaila eta hiru eragozpen identifikatu behar dituzte.

## 4. Aktibitatea: Zer dakigu?

**Aktibitate honen helburua da** Identifikatzea gai horren inguruan dakitena eta faltan dutena. 2 aktibitate bereizten dira:

1. Ikasleen aurreiritziak umeen denborazko pertzepzioaz azaleratzeko: Brainstorming Teknika.
2. Ikasleen, euren aurreiritziak denboraren inguruan: "Denboraren inguruan" galdetegia

**Ematekoa:** Taldetan idatziz bildutakoa.

Entregatzeko **data:** klasean bertan

**Ebaluaziorako** %5

Nork: taldekide bakoitzak talde osoaren lana eta nota bataz bestekoa izango da.

	<b>GUTXI LANDUA 1</b>	<b>ERDIXKA 2</b>	<b>ONGI 3</b>	<b>OSO ONGI 4</b>
Giroketa	Taldekideak ez dira gaian sartu eta batzuk ez dute ia ekarpenik egin.	Taldekideak gaian sartu dira baina ekarpenak gairekin ia ez dute loturarik izan.	Taldekideak oso ondo sartu dira gaian, identifikatu dituzte denboraren inguruan dituzten akatsak.	Taldekideak oso ondo sartu dira gaian eta ekarpenak guztiz egokiak izan dira.

**Deskripzioa: bi pausu bereizten ditugu**

1. aktibitatea:

- Banaka: idatzi post-it batzuetan burura datorkiena
- Talde txikian: Identifikatu behar dituzte arazo horren azpian duden mota ezberdinetako gaiak: adibidez denbora kontzeptuaren azpi-kontzeptuak eta ezaugarriak, umeen ideiak denboraz, zelan landu gai hori Haur Hezkuntzako geletan edo zer errekurtsu erabil ditzakegu.
- Talde handian ekarpenak aztertuko dira

2. aktibitatea: Denboraren inguruan galdetegia

- Banaka: erantzun galdetegiaren lehenengo 2 galderak
- Taldean: 3 eta 4 galderak erantzun
- Talde handian ekarpenak aztertuko dira

## GALDETEGIA DENBORAREN INGURUAN

1. Denbora hitza entzuterakoan burura datozkizun 4 hitz edo esaldi
2. Zer da zuretzat denbora?
3. Definitu kontu hauek umeeek ulertzeko moduan:
  - a. EGUTEGIA
  - b. EGUNA
  - c. ASTEA
  - d. HILABETEA
  - e. URTEA
  - f. MINUTUA
  - g. URTAROA:
  
4. Erantzuteko gai zara?
  - Nola deitzen da gure egutegia? Zein da bere oinarria?
  - Zergatik kokatzen dugu urte berriaren lehenengo eguna urtarrilaren 1ean eta ez abenduaren 25ean edo ...?
  - Noiz jaio zen Kristo?
  - Zergatik hilabeteak 12 dira eta asteko egunak 7? Beti izan al da horrela?
  - Zeri deitzen diogu bisurtea (urte bisustua)? Zergatik dago?
  - Nola da posible esatea Bilbo 1300 urtean fundatu zela bere fundazio gutunean 1338 urteko data agertzen bada?
  - URTAROA Zein da lehena? Nola deitzen dira? Ezagutzen al duzue beste izenik?
  - HILABETEA Zeintzuk dira?
  - Ba al dakizu nondik datozen izenak?



## 5. Aktibitatea: Eskolara goaz

Proiektua testuinguru erreal batean kokatuko dute

**Ematekoa:** Informazioa jasotzeko fitxa eta informe idatzia Testuinguruarekin.

Entregatzeko **data:**

**Ebaluaziorako** irizpideak eta notarako balioa %5 irizpide hauen arabera:

1. Eskolarekin data adostu
2. Galdetegiaren egokitasuna
3. Informea

Deskripzioa:

Lehenengo pausuan abiapuntua izango den errealitatea aztertu eta definitu behar da, jakin behar dugu zein testuingurutan erabiliko ditugun materialak, eta honen arabera helmuga planteatu eta bidea diseinatu.

Horretarako, eskola batera joango dira ikasleak azterketa hau egiteko. Talde bakoitzak erabakiko du nora jo informazio horren bila. Beraz, bisita prestatu behar da. Lehenengo galdetegia eta informazioa jasotzeko fitxa prestatu Bertan puntu hauek egon behar dira:

1. Ikasleen ezaugarriak: adina, maila, ikasle kopurua, eskolako testuingurua.. argazkiak atera daitezke.
2. Erabiltzen diren baliabide didaktikoak inguruaren ezaguerako arloan: liburu eta ipuinen zerrenda, baliabide digitalak
3. Nola lantzen dira denbora kontzeptuak? Materialak zerrendatu,
4. Klasean dauden baliabide elektronikoak zerrendatu deskribatu eta baloratu.

Geroago, eskolako zuzendariarekin eta irakaslearekin kontaktuan jarri eta eguna adostu.

## 6. Aktibitatea: Adituen informazioa

TREPAT, C. A. eta COMES, P (1998) El tiempo y el espacio en la Didáctica de las Ciencias Sociales. 47-66 orr.  
TREPAT, C. A. eta COMES, P (1998) El tiempo y el espacio en la Didáctica de las Ciencias Sociales. 67-84 orr.  
POZO, I. (1985) El niño y la Historia, 5-32 orr.  
SERRA, J.A. (1997) La orientación en los primeros cursos de primaria, 28-34 orr

Ematekoa: irakurritako testuari buruzko iruzkina behean dagoen gida jarraituz

Entregatzeko data: hurrengo saio teorikoa.

Ebaluaziorako irizpideak eta notarako balioa: %10

Irizpideak:

1. Atal guztiak osatu behar dira
2. Ideiak ondo adierazten ditu.
3. Iruzkin kritikoa arrazoitze egokiak eginez.

Banakako lanetan ebaluazio positiboa lortzeko gutxienezko bete ez dutenek hurrengo saiorako hobetu behar dute.

Deskripzioa: (teknika, pausuak) puzzlea

1. taldekide bakoitzak testu bat irakurriko du eta iruzkina egingo du gidoia jarraitzen klasetik kanpo.
2. klasean, testu bera irakurri dutenak bilduko dira zalantzak argitzeko, ulermena baieztatzeko eta ondorioak ateratzeko.
3. lan taldeak bilduko dira eta kide bakoitzak besteei irakurri duena azalduko die ondo ulertu dutela baieztatzen.
4. klaseko talde handian komentatuko dira testuak.

Adituen informazioa. Testuak Komentatzeko gidoia

Ikaslearen izena eta abizenak:

Entregatzeko data:

Zer irakurri duzu? (erreferentzia bibliografikoa)

Testuaren analisisa:

- Egitura: eduki blokeak edo paragrafoak
- Ideia inportanteak
- Eskema bat egin.
- Laburpena

Iruzkin kritikoa:

- Zer ikasi duzu?
- Besteekin komentatzeko edota argudiatzeko ideiak edo argumentuak.
- Iritzi pertsonala.

Baloratzeko irizpideak:

- 1.atal guztiak osatu.
- 2.ideiak ondo adierazi eta argudiatze egokiak egin.
- 3.iruzkin kritikoa

## 7. Aktibitatea: Material azterketa

**Material batzuk aztertuko dituzte.**

**Ematekoa:** egindako analisiaren fitxa. Indibiduala

Entregatzeko **data:** klasean bertan

**Ebaluaziorako** irizpideak eta notarako balioa %5 irizpide hauen arabera:

1. Atal guztiak osatu.
2. Ideiak ondo adierazi.
3. Iruzkin kritikoa.

Deskripzioa

Ikasleek materialak ekarriko dituzte: jolasak, ipuinak, puzzleak

Taldean ekarritako materialak aztertuko dituzte

Ikasle bakoitzak bat aukeratuko du eta horren analisia egin behar du fitxa bat jarraituz.

Material azterketa. Baliabideak aztertzeke fitxa
Ikaslearen izena eta abizenak: Entregatzeko data:
Zer aztertu duzu? (Fitxa teknikoa) Titulua; egilea; editoriala; tokia eta urtea; euskarria
Baliabidearen deskripzioa <ul style="list-style-type: none"> <li>• Gaia edo edukia</li> <li>• Nori zuzendua?</li> <li>• Nola erabiltzen da?</li> </ul> Nolako ilustrazio eta testua du?
Baliabidearen analisia <ul style="list-style-type: none"> <li>Helburu didaktikoa edo ludikoa du?</li> <li>Zein da ikaslearen papera?</li> <li>Zein da irakaslearen papera?</li> <li>Ikasleen ikaste prozesua bultzatzeko lagungarria da?</li> <li>Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzat egokia da?</li> </ul> Egokitzapenak sar daitezke? <ul style="list-style-type: none"> <li>Aniztasuna ( kulturala, soziala, generoa ...) kontuan hartzen du?</li> </ul>
Iruzkin kritikoa: <ul style="list-style-type: none"> <li>• Erabiliko zenuke gelan? Zergatik?</li> <li>• Besteekin komentatzeko edota argudiatzeko ideiak edo argumentuak.</li> </ul> Iritzi pertsonala.
Baloratzeko irizpideak: <ol style="list-style-type: none"> <li>1. Atal guztiak osatu.</li> <li>2. Ideiak ondo adierazi.</li> <li>3. Iruzkin kritikoa.</li> </ol>

## 8. Aktibitatea: Baliabideak sarean

Eskola guztietan, haur hezkuntzan, denbora lantzen da, bai bizipena barneratzen, eta baita kontzientzia mailara azaleratzen. Aktibitate honen helburua, denbora lantzeko, sarean dagoen materiala ezagutzea da. Inguruaren ezaguerarako materialak sarean bilatuko ditugu hain zuzen, hh blogak, wikiak, errepositorioak eta beste errekurtsio batzuk ere bai. Beraz, nola lantzen da denbora eskoletan?, Horretarako informazioa kudeatzeko erremintak erabiliko ditugu, hau da, informazioa bilatzeko, aukeratzeko eta antolatzeo aplikazioak.

**Ematekoa:** topatutako informazio eta material erreferentziak Delicious-en bildu.

Entregatzeko **data:** hurrengo saio praktikoa

**Ebaluaziorako** irizpideak eta notarako balioa: %10 erreferentzia kopurua, etiketa erabilera, informazioa nola antolatzen duten, egiten diren oharrak, erreferentzien egokitasuna.

	<b>GUTXI LANDUA</b>	<b>ERDIXKA</b>	<b>ONGI</b>	<b>OSO ONGI</b>
Erreferentzia kopurua	<5 erreferentzia jasotzen du. Etiketa gutxi Etiketa egokiak	5-8 erreferentzia jasotzen du	8-11 erreferentzia jasotzen du.	>12 erreferentzia jasotzen du.
Erreferentzia egokitasuna	Bildutako informazioak ez dauka loturarik eskatutakoarekin	Informazio gutxi eta gaizki antolatua	Informazio egoki bildu da eta logikaren arabera antolatuta dago	Informazioa oso ondo jasota dago eta primeran antolatuta. Horretaz gain, lanak originaltasuna eta sormen gaitasuna erakusten ditu.

aurkezpena	Txostena gaizki aurkeztuta eta edukari dagokionez, informazio gutxi.	Txostenaren aurkezpena ez dago txarto, baina informazioa, edukia, gaizki antolatuta dago	Aurkezpen egokia du eta informazioa logikaz antolatuta, txukun dago.	Aurkezpena oso zaindua, txukuna eta ederto antolatua eta idatzia
etiketak		Egokiak/ ezegokiak		
Oharrak		Egokiak/ ezegokiak		

**Deskripzioa:**  
 Delicious-en talde kontu bat zabaldu.  
 informazioa bilatu: informazio bilaketa egiteko irizpideak eta deskriptoreak definitu (hitzak, bilatuko diren kontzeptuak), esate baterako: denbora lantzeko materiala, denbora haur hezkuntza, haur hezkuntzarako materiala, inguruaren ezaguera materiala, inguru material didaktikoa.  
 Informazioa antolatu eta kategorizatu (etiketak): Delicious-en gorde, erreferentzia guztietan etiketak ipini eta ohartxo egin.  
 Edukiak aztertu: Informazio egokia aukeratu behean agertzen den taulak laguntzaz.  
 Horietako bat aukeratu (arrazoiak ematen) eta talde handian aurkeztu.



## 9. Aktibitatea Non gaude orain?

Proiektuaren 4.. fase honetan ikasleek haien proposamena diseinatu eta gauzatuko dute. Aztertzen hasiko dira proiektuan noraino heldu diren, hasierako zalantzak ea konpondu dituzten eta prest dauden haien proiektua burutzeko.

**Ematekoa:** Posterra proiektuaren gidoiarekin  
Talde bakoitzak poster bana egingo du.

**Entregatzeko data:** Egun berean

**Ebaluaziorako** irizpideak  
Zuzentasuna

Deskripzioa:  
Talde guztiek poster batean euren proiektua irudikatuko dute: non gaude?  
Nora joan nahi dugu? eta Nola helduko gara?  
Talde guztiek besteen posterra aztertu eta gero talde handian zalantzak argituko dira.

## 10. Aktibitatea: Gure proposamena diseinatu eta gauzatu

Proiektua diseinatu: denbora lantzeko karpeta digitala osatu 5 materialekin: 2 errutinak lantzen direnean erabiltzeko, ipuin bat eta 2 ikaslearen aukeran

**Ematekoa:** denbora lantzeko materialak (ipuina...)

Entregatzeko **data:** 5. Astea aurkezpenarekin batera.

**Ebaluaziorako** irizpideak eta notarako balioa: %35

Materialak diseinatu eta gauzatu

Egingo dugun materialaren funtzioa, edukiak eta erabiltzeko gida eta ebaluazioa

Materiala diseinatu, erabilera (nork, zer), Aspektu teknikoak, Ebaluazioa eta hausnarketa

10. Aktibitatea: <b>Material didaktikoa diseinatzeko pausuak</b>	
- Zertarako nahi dugu? Zer nahi dugu egin material honekin?	
- Materialaren helburu espezifikoak:	
- Konpetentzia eta helburu didaktikoak formulatu.	
- Noiz, zein testuingurutan eta nork erabiltzeko? Erabiltzaileen rola definitu. Ikasleen aktibitateak zeintzuk izango dira?	
- Edukinaren eskema edo gidoia hiru aspektuak kontutan harturik: estetikoak, interakibitatea eta edukin edukatiboa. Elementuak eta atalak:	

## Idea eta aholku batzuk

### Aurretikoa:

Lana egiten hasteko eta egiten dugun bitartean **testuingurua** definitzen dituen elementuak kontutan hartu behar dira (Curriculum, helburuak, ikasleen ezaugarriak..)

Aurrekoa definituta, **zer nahi dugu** egin erabaki beharko dugu: Puntu hau definitzeko pentsatu behar dugu zeintzuk izango diren:

1. Materialaren funtzioak: motibatu, informazioa eman, ikasketa indartu, trebetasun konkretu bat landu..
2. Helburu eta edukia didaktikoak, edukiak antolatu, sekuentziatu, (eskema bat egitea komenigarria da horretarako.)
3. Materiala: daukaguna edo bilatu beharrekoa.

### Materiala diseinatzeko:

Hiru osagarri diseinatu beharko ditugu: informazioa, interaktibitatea eta aurkezpena. (Edukien gidoia eta gidoi teknikoak)

**Informazioaren** diseinua: erabaki behar dugu zeintzuk izango diren gure mezuaren edukiak: zer igorri nahi diogu entzuleari? Testua, irudiak eta soinua diseinatzen dugu.

**Interaktibitatea**: hau da, nola antolatuko dugu nabigazioa?. Zeintzuk izango diren loturak ekintzak animazioak...

**Aurkezpena**: nola egiturako ditugun elementu teknikoak erabaki behar dugu hirugarren pausu honetan. (trantsizioa, efektu teknikoak, ...)

### Diseinatzeko printzipio orokorrak

Arreta, pertzepzioa eta ikasketa dira hiru pausuak mezua helarazte prozesuan.

Orokorrean, aurkezten den materiala **erakargarria eta esanguratsua** izan beharko da.

Informazioaren **antolakuntza logikoa** zaindu: hasieran puntu nagusiak aurkeztu, oso konplexua diren ideiak edo mezuak zatitu.

Beharrezkoa den **informazio guztia** sartu eta bakarrik hau.

Puntu inportanteak indartzeko **elementu osagarriak** antolatu (geziak ipini, negrita, grafikoak,...)

Konkretuago, arreta, somaketa eta ikasketa hobetzeko zenbait puntu:

**Arreta erakartzeko**: elementu berriek arreta erakartzen du, baita ere handiagoa edota desberdina denak ere. (koloreak, letra edo irudi handiagoa ipintzen,...)

**Arreta mantentzeko**: informazioa esanguratsua izan beharko da. Oso zaila denak edo sinpleegia denak ere interesa galtzen du.

**Pertzepzioa**: ezagutzen dugunarekin **erlazionatzen** dugu (borobil bat pilota bat da). Esperientzia eta aurreiritziek eragina daukate, (koloreen nahasketa, eta kontrastea,.. erabiltzen diren irudiak, adibide eta konparaketak hobeto ulertzeko (500 metro, Empire State bezalako altua..)

Pertzepzioa **selektiboa** (hautakorra da): ez ipini elementu gehiegi ezin baitu guztiak sumatu. Eta beste aldetik, lagundu arreta zentratzen puntu esanguratsuetan.

Pertzepzioak **antolaketa formala** behar du: elementuak ordenatu behar dira.

Espektatibek pertzepzioan eragina dute.

**Ikasketa** optimizatzeko, materiala logikoki antolatu behar da eta esanguratsua izan beharko da. Errepikapenak laguntzen du. Diskurtsoan nabariak diren terminoak ezagutu behar dira eta hauekin erlazionatzen diren kontzeptuak ere.

Adibideek asko laguntzen dute.

Informazioa esaldi erredaktatuan aurkeztu beharrean zerrenda moduan ematen ba da, ikasketa errazago ematen da.

**Ikus diseinua.** Elementu hauek zaindu behar dira:

**Irudiaren tamaina:** proiektatzen denean gelako tamainarako egokia izan dadila, entzule guztiek ikusteko.

**Testua:** esaldiak irakurtzeko errazak (ikustaldi bakar batean antzemateko). Den dena ez da sartu behar, ahozko komunikaziorako laguntza da gardenkia, ez da baliabide bakararra.

**Letra:** Tamaina, estilo eta tipoa, espazioak eta kontrastea zaindu behar dira.

**Irudiak eta grafikoak:** sinpleak eta adierazgarriak, testuarekin osotasuna mantendu, elementu esanguratxoak nabarmendu (kolorea, forma edo posizioa) ulermena errazago egiteko. Efektu bisualak zaindu proiektzioan)

**Informazioaren fluxua:** aurkezteko erritmoa eta elkar lotzeko modua.

**Kolorea:** dagoenean zaindu behar da gehiegi ez sartzeko, eta aldi berean informazioa transmititzeko lagungarria izateko.

Arlo plastikoan kontutan hartzeko arau batzuk:

Sinplea izan dadila, ez erabili koloreak eta elementu apaingarririk ez baduzu horretarako arrazoirik.

Garrantzia daukana erdian ikus dadila.

Marrak: horizontalean apaltasuna adierazten dute, bertikalean berriz, dinamismoa.

## 11. Aktibitatea: Lana aurkeztu

Denbora lantzeko proposamenaren aurkezpena

### **Ematekoa:**

Aurkezpena

Entregatzeko **data:**

**Ebaluaziorako** irizpideak eta notarako balioa: %10

Aurkezpena: %5 Taldeek beste taldeenak egingo ditu.

Irakasleak : %5

Taldearen lau kideek egingo dute aurkezpena klasean, euren artean erabaki nola eta zer, baina kontuan hartu gero irakasleak galderak edonori egingo dizkiola.

Azaltzeko oinarrizko puntuak ondokoak dira:

Taldeakideak eta taldea aurkeztu

Sarrera eta justifikazioa

Esplikatu zer egin duzuen,

Nondik abiatu zarete? Kontestualizazio didaktikoa, ikasleak, zer irakasteko...

Pentsatu behar duzue ere nola egingo duzuen, hau da, zein izango den euskarria, (bideo bat, gardenkiak, ....) Kontuan hartu ere klaseko beste kideek zuen lan honetatik ikasi egin behar dutela, beraz, irakasleei ezezik, zuen kideei ere aurkezten diezuela lana.

## 12. Aktibitatea: Zer ikasi dugu?

Proiektuaren bidez ikasi duten inguruko hausnarketa

### **Ematekoa:**

12.1. Denbora kontzeptuaren kategorien taula.

12.2. Taldearen auto-ebaluazioa.

Entregatzeko **data:** Azken astea

### **Ebaluaziorako**

12.1. Denbora kontzeptuaren kategorien taula. % 5

Taldearen auto-ebaluazioa: errubrika jarraituz %10

### **Deskripzioa:**

12.1. Prozesuaren bukaeran, oinarritzko kontzeptuen ulermena bermatzeko, ikasle guztiek denbora kontzeptuaren oinarritzko kategorien inguruan informe idatzia egingo dute.

Horretarako taldeko ikasleek kategoria bat aukeratuko dute eta Hannoun-en taula jarraituz, (erritmoa, orientazioa...) azalduko du zelan lagundu haurrari nozio denbora horiek bereganatzen.

12.2. Azken hausnarketa: Taldearen auto-ebaluazioa.

Zer ikasi dugu proiektu honen bidez?

Hausnartu talde txikietan errubrika jarraituz. Gero, talde handian zabalduko dira balorazioak.

12.1. Denbora kontzeptuaren kategorien taula.
DENBORA KONTZEPTUAREN KATEGORIAK (Hannoun-en arabera)
<p>1. ERRITMOAK</p> <p>1.1. Frekuentzia: Gutxitan.- batzuetan.-noizbehinka.-askotan</p> <p>1.2. Erregulartasuna: erregularki.-irregularki</p>
<p>2. ORIENTAZIOA</p> <p>2.1. Orainaldia: orain .- gaur.- une honetan</p> <p>2.2. Iragana: lehen.- atzo.-aspaldi.-</p> <p>2.3 Etorkizuna: gero.- geroago.- bihar.- etorkizunean</p>
<p>3.UNEEN KOKAPEN ERRELATIBOAK</p> <p>3.1. Jarraipena: lehen/gero.- hasieran/bukaeran.-lehenago/geroago.-zharragoa/gazteagoa</p> <p>3.2. Aldiberekotasuna: aldi berean.- batera</p> <p>4.2. Iraunkortasuna: betirako.-betidanik.- bat-batekoa.</p>
<p>4. IRAUPENAK</p> <p>4.1. Aldakortasuna: egonkorra.- iragankorra</p>
<p>5. ABIADURAK</p> <p>5.1. Gelditasuna: geldi.- geldiro.- astirago</p> <p>5.2. Arintasuna: arin.- arineketan.- arinago</p>
<p>6. DENBORAREN NEURKETA</p> <p>6.1. Zenbakiak</p>



<b>12.2. Zer ikasi dugu? Lanaren Ebaluazioa</b>
---

Nork egina:
-------------

Aspektu indartsuak:
---------------------

Zer ikasi dugu proiektu honen bidez? Konparatu hasieran izan dituzuen zalantzak eta gabeziak eta orain testuinguru horretan aritzeko garatu dituzuen gaitasunak
---

Aspektu ahulak eta hobetzeko proposamenak
---

<b>12.2. Talde lanaren ebaluazioa.</b>			
<b>Adierazleak</b>	<b>Gutxitan</b>	<b>Normalean</b>	<b>Askotan</b>
Helburuak betetzen dira			
Taldekide guztien ikuspuntuak eta iritziak kontuan hartzen dira			
Bakoitzak bere lanaren zatia burutzen du			
Bileraren garapenerako planifikazioa egiten da			
Egiten den bilerako planifikazioa betetzen da			
Ordutegia eta bileren egunak taldekide guztiak errespetatzen dituzue			
Lanak eperako egiten dira			
Rolak errespetatzen dira			
Elkarrekiko laguntza ematen duzue			
Taldearen izena:			

### **3. Informazio osagarria**

---

#### **Gaitegia**

Proiektuan Haur Hezkuntzako 2. kurtsoko bi irakasgai daude inplikatur, lehenengo lauhilabetekoak (*Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza* eta *IKT Haur Hezkuntzan*)

Proiektuan garatzeko gaiak:

- *Gizarte eta Kultura Ingurunearen Ezagutza* irakasgaiari dagozkionak: *Gizarte Zientzien oinarriko kontzeptuak: denbora*

Denboraren kontzeptua

Nola garatzen da haurrengan denboraren pertzepzioa

Nola lagunduko diogu haurrari denboraz jabetzen

*Gizarte eta kultura ingurunearen ezagueraren eraikuntza haurrengan*

*Gizarte eta kultura ingurunearen ezagueraren ikasketarako proiektu, baliabide eta materialak Haur Hezkuntzan*

- *IKT Haur Hezkuntzan* irakasgaiari dagozkionak: *Web 2.0 hezkuntzan: ediziorako eta ezagutzaren kudeaketarako erremintak. Ikasketarako aplikazioak.*

Baliabide didaktikoen diseinua, gauzatzea eta balorazioa.

Praktika onak IKTkin.

### **Lan karga**

Irakasgai bakoitzaren %40a, hau da: 2,4 kreditu x2= 4,8 kreditu. Kreditu kopuru honek 120 lanordu inplikutzen du ikasle bakoitzarentzat. Eta lan taldeak 4-5 kidez osatuko direnez, talde bakoitzak proiektua burutzeko 480-600 ordu inbertituko du.

### **Ikaste prozesuaren emaitzak**

Proiektuaren emaitza Haur Hezkuntzan denbora lantzeko errekurtsoen karpeta digitala izango da, bost baliabidez osaturik: ipuin bat errutinak lantzen direnean erabiltzeko, bi errekurtsu eta beste bi ikasleen aukeran.

Proiektua burutu ondoren, ikaslea gai izango da:

- Haur Hezkuntzan denboraren pertzepzioa garatzeko prozedurak eta baliabideak identifikatzeko.
- Haur Eskolan denboraren ezagutze prozesuan sortzen diren zailtasunak identifikatu, aztertu eta era globalizatuan bideratzeko.
- Denboraren pertzepzioa lantzeko materialak diseinatzeko.
- IKTak ezagutzaren kudeaketan eta eraikuntzan erabiltzeko.
- Haur Hezkuntzako testuinguruan IKTak aplikatzeko.
- Taldean lan egiteko.
- Beste irakasleekin elkar lanerako eta komunikatzeko sareko errekurtsuak erabiltzeko.

Materiala EHUko ikasleen artean erabiltzeko baimena.

.....taldea osatzen duten ikasleek:

.....

.....

.....

.....

Baimena ematen dugu EHUko ikasleek gure lana kontsultatzeko eta berrerabiltzeko iturria aipatuz.

Data eta sinadurak:



Molero, B. & Bilbao, J. (2012). Andereño, zer egingo dugu orain: bazkaldu ala afaldu?– IKD baliabideak 3 -<http://cvb.ehu.es/ikd-baliabideak/ik/molero-03-2012-ik.pdf>



**Aitortu - Ez merkataritzarako -Partekatu baimen beraren arabera (by-nc-sa):** Ezin duzu lan hau merkataritza xedetarako erabili. Lan hau aldatzen baldin baduzu, edo lan eratorri bat sortzen baduzu, sortutako lana banatu dezakezu soil-soilik baimen honen berdi-berdineko baten mende.